

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

Akats zuzenketa

Akatsak antzeman direnez Tolosa eta Ibarra arteko mugan dagoen San Ignazio auzoa eta Otarreaga kaleko bidegurutzea urbanizatzeko presazko prozeduraren bidez nahitaezko desjabetzeari buruz 2026ko abuztuaren 21eko 158 zk. duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiko laugarren, bosgarren eta seigarren puntuetan, jarraian agertzen den eran zuzentzen da:

— Honako hau dioenean:

«**Laugarrena.** Dagokion ondorioetarako, espediente honetan interesduntzat hartzea adierazitako eragindako ondasun eta eskubideen jabeak.

«**Bosgarrena.** Ondasunen zein eskubideen zerrenda eta jabeen izenak argitaratzea, eta jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean, iragarkiak jarri Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Tolosaldeko Ataria egunkarian, udal honen egoitza elektronikoa (<https://www.tolosa.eus>), eta udaletxeko iragarki-taulan eta interesdunei banan-banan jakinarazita, desjabetzeak eragindako eskubideen titularrek aukera izan dezaten zerrenda horretan egindako akatsak zuzentzeko edo haiek okupatzearen aurka egiteko, arrazoia eman.

«**Seigarrena.** Xedatzea, okupazio beharra sinatu ondoren, interesdunekin balio justua zehazten has dadila.»

— Beste hau esan behar du:

«**Laugarrena.** Premiazkotzat jotzea nahitaezko desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen okupazioa.

«**Bosgarrena.** 2026ko irailaren 9an, goizeko 09:00etan, Tolosako Udaleko laugarren solairuko bilera gelan, Administrazioaren ordezkaria agertzea, peritu batekin eta alkate edo zinegotziarekin batera, eta jabeekin zein parte hartzen duten gainerako interesdunekin biltzea, eta okupazioaren aurreko akta egitea; akta horretan desjabetu beharreko ondasuna edo eskubidea deskribatzeko eta batzuek zein besteei emandako adierazpen zein datu guztiak jasotzeko, eragindako eskubideak, horien titullarrak, horien balioa eta okupazio azkarra eragiten duten kalteak zehazteko baliagarriak direnak.

«**Seigarrena.** Eraginpekoari okupazioaren aurretiazko akta egiteko eguna eta ordua jakinaraztea, agertzeko betebeharra bete ahal izan dezan. Akta egiteko aurreikusitako eguna baino gutxienez zortzi egun lehenago egin beharko da jakinarazpena.

«**Zazpigarrena.** Ediktua iragarki-taula ofizialean eta, laburbilduz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN zein herriko egunkarian argitaratzea, akta egiteko aurreikusitako eguna baino gutxienez zortzi egun lehenago.

Era berean, interesdunen eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoa.

Hala ere, Korporazioak egokitzat jotzen duena erabakiko du.

Tolosa, 2026ko irailaren 2a.—Andu Martínez de Rituerto Arregi, alkatea. (5815)

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Corrección de errores

Habiéndose apreciado errores en los puntos cuarto, quinto y sexto del anuncio relativo a la expropiación forzosa mediante procedimiento de urgencia para la urbanización del barrio San Ignacio y del cruce con la calle Otarreaga, situados en el límite entre Tolosa e Ibarra, publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 158 de 21 de agosto de 2026, se procede a su corrección en los siguientes términos:

— Donde dice:

«**Cuarto.** A los efectos oportunos, considerar interesados en el presente expediente a los propietarios de los bienes y derechos afectados.

«**Quinto.** Publicar la relación de bienes y derechos, así como los nombres de los propietarios, haciéndolos públicos por un plazo de quince días, mediante anuncios en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el diario Tolosaldeko Ataria, en la sede electrónica de este Ayuntamiento <https://www.tolosa.eus>, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y mediante notificación individualizada a los interesados, a fin de que los titulares de los derechos afectados por la expropiación puedan rectificar los defectos cometidos en dicha relación u oponerse motivadamente a su ocupación.

«**Sexto.** Disponer que, una vez firmada la necesidad de ocupación, se proceda a determinar el justiprecio con los interesados.»

— Debe decir:

«**Cuarto.** Declarar urgente la ocupación de los bienes y derechos afectados por la expropiación forzosa.

«**Quinto.** Que el día 9 de septiembre de 2026, a las 09:00 horas, en la sala de reuniones de la cuarta planta del Ayuntamiento de Tolosa, comparezca el representante de la Administración, acompañado de un perito y del alcalde o concejal, y de los propietarios y demás interesados que intervengan, levantando acta previa a la ocupación, en la que se describa el bien o derecho a expropiar y se recojan todas las manifestaciones y datos aportados por unos y otros, que sirvan para determinar los derechos afectados, sus titulares, su valor y los perjuicios que originan una rápida ocupación.

«**Sexto.** Notificar al afectado el día y hora para el levantamiento del acta previa a la ocupación, a fin de que pueda cumplir con su deber de comparecencia. La comunicación deberá realizarse con una antelación mínima de ocho días a la fecha prevista para el levantamiento del acta.

«**Séptimo.** Publíquese el edicto en el tablón de anuncios oficial y, en resumen, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el diario o diarios de la localidad, con una antelación mínima de ocho días a la fecha prevista para el levantamiento del acta.

Asimismo, estará a disposición de las personas interesadas en la sede electrónica de este Ayuntamiento.

No obstante, la Corporación decidirá lo que estime oportuno.

Tolosa, a 2 de septiembre de 2026.—El alcalde, Andu Martínez de Rituerto Arregi. (5815)

